

MARTIN RADA

Nabillen baztar auetan zer geranik askok ez dakite. Itsasarte xarmantak emen bai, eta erri xumeak euskotarren izateari inondik ez antz-ematen. Ikastekoetan luzaro murgildutakoek geron izena aisago aitortuko. Oraifiago, Martin RADA au euskotarra dala esanez datozkigu. Amabost-eun eta ogeitaemezortzigarrenean, garagarrillaren ogeigarrenean Irufia'n jaio zitzaigun. Senideetan zazpigarrena: aundizkietakoa eta aitaren izena Leon. Martin mutikoa, amaika urtekoa zala, aitarekin batean Paris'era aldatu. Iri ospetsuan askukifiak ikasi. Andik itzuli zanean Salamanka'ra: emen zenbakizti eta lutelesti eta izarren albirak menderatu zizkigun. Baita latin eta eladera ere ederki bezin ederki.

Ogei urteko zala, apaizgoan sartzea gogoratu zitzaiolarik augustindar lekaidietara urbildu zitzaigun. Ondoren Toledo'n sei urte. An egokiera gertatu ziotzaion eta urrutietan Iesu-Kristo'ren irakatsiak zabaltzeko ana ba-zala eta ogeitairu urteko zala Mexiko'n genduan. An *Otomies* izeneko endakoen izkera ikasi zezala agindu zioten. EspafLarrak izan ere Mexiko'n Kastilla'tik zeramaten erdera angoei irakatsi nai, eta izugarrizko ezinak izaten zituzten. Irufiar Martin au bai buru argikoa, eta bost illabeteren buruan Otomiestarrei beren iz-

keran aritzeko ana ba-zan. Idatzi ere izkera berria ikasteko eliztia ondu zuan: oro bat aientzat izaten zituan itzaldiak oso poliki egokitu. Bere oiekin batera eta bestera ezin ibili eta ain Ian bikanak gerokoentzat jasotzeko inor ez zan izan.

Pilipin auetarako asmoz zala zumarragatar Legazpi'k Mexiko'n txango egin.

Artizarrak bezela Martin Rada'ren izenak dizdiz egiten. Legazpi oartu zitzaigun oso lagun bikana izango zukeala, eta ua augustindar lekaide eskudunari eskatzera agertu zan. Baiezkoa izan zuan, ordurako beste augustindar Urdaneta berekin zekarrelako eta ordiziarrak irunarra askorako zitekeala ongitxo zekilako. Izan ere Martin izkerelari bizkorra, urtiztilari argia eta gizaseme atsegiila.

Elkarrekin oien antzeko irukorik espafiarren menpeko bazterretan inon ez gertatu. Nik nere buruari askotan esan izan diot, eta uler lezakenari aitortu ere bai: «Zuek pxlipindarrok izugarrizko aukera eta zoriona izan dezute, iru oriek eta beste euskotar asko zuen artera etorri izanaz. Magallanes portugaldarra besterik zan, eta izkilluz guztia egin zezakela uste zuena: Lapu-Lapu'k Maktan izarotxoan il zuen, Cebu'ko aldamenean. Ordurako Lapu-Lapu'k erbestetarrak aurkitu zituan, noskiago: bai txinatarrak eta nipondarrak eta berein malasiatar: ezik oriek guztiak ortz-zuriz eta itz-leunez zetozkion... eta Magallanes indarkerriz arro...».

Ia beti auxe idatzi izan digute, pilipindar iopuen aide irten zana Cebu'ko lenengo Gotzai iaun Salazar izan genduela: alegia, bertako umeak morrontza gogorrean ikustea min izaten zigula. Egitan, ordea, Rada'k bertakoen aide Ian aundiagoak egin zituan. Orain-oraintxe ere, pilipin auetan, bertako seme-alabak adeitsu eta esangin agertzen zaizkigu. Ilo-Ilo'n ditugun txinatarrak nai ana morroi eta neskame beren etxera artzen. Orobat emendik Ipar-Ameriketara sallean doazkigu. Bai Europe eta arabitarren alderdietara ere... irabazi errexagoaren atzetik.

Edestilariak oso gutxi aipa izan digute eguzkiaren kuttuna degun lur ontan iopu-morrontza izan danik. Bafian, Elizak asiera-asieratik emengo askoren bizi-izate latzari benetako

errukia izan dio. Mexiko'n ibili zitzaigunean, *Rada'k*, espaniar askok egiten zutena ikusi zuen, eta olakoen okerrak gaitzesteko Las Casas Bartolome Gongotzai jaunaren itzak eta aginduak ere ikasi zituan. Las Casas ilia zan, 1566-garrenean, alegia. Banan, Gotzai iaun errukitsuaren lanak eta alegiia Mexiko guztian ots-aundiko ziran.

Asi Cebu'tik, gero Panay'en eta akenik Luzon'en gudu-mutiltzakoek eta goseti aundiek bertako umeak txito estu artzen: errukarri auek laka ezin ordaindurik ibiltzen ziran (goikoek geiegi eskatzen...) eta, agintaritzan zegonak zigorra astintzen. *Rada'k*, ori guztia ezin ikusi eta onartu, eta *andik* zetozenei esaten: —«Aspertzen eta nazkatzen ba'zaizkizue, zuentzat okerrago, Bertakoak asko dira, kopuru larria, eta zuei erasotzea gogoratzen ba'zaie, zer egin bear dezute?». —«Agindu izan zaigun bizi-saria garaiz eskuratuko ba-gendu, guk ifiorenik ez genduke bear. Banan, geiegi dakizu: *andik* txanponak urri datoz eta berandu...»

Legazpi'rekin Manila'ra igo zan. Iri ontan Augustindar lekaidien Buru egin zuten. Ifiork ezer zuzentzen ez zuela ikusirik, bere Anaidi'ko bat Mexiko eta Madril'era biali zuen, gertatzen zana angoei salatzeke. Legazpi bigufiegia noski, eta *Rada'k* ari esatekoak asko zituen.

Edestilarietan, gure irufiar gartsua aintzakotzat artu diguna Ipar-Amerikar Edward G. Bourne degu.

Oraingo zenbait iakitunentzat *Rada'k* besterik ere ba-digu: alegia, Txina'ra egin zigun itzuli eta ioan-etorria. Txinatarrak, ainbesteko zabaldiak an bertan dituztela ere, Pilipin'etako zazpi izaro zerentzat nai zituzten, eta 1574-garrenean Limahong zeritzanak Manila menderatu nai izan zuan... eta nai zuenik ez iritxi. Orduan Manila'n agintarilen zan Lavezares'ek garai artan Cathay esaten zitzaion Aginterrira ordezkariak biali nai izan zituan: Limahong'ekin etorritako iaun eta aundizki batek alaxe eskatu ziolako. Ortarako lau bildu ziran: Buruzagi RADA, eta lekaide bat bi gugumutillekin: aue-tako bat ementxe Ilo-Ilo'ko Oton'en eskudun zan Loarka. Laukoa, txinatarren ontzian eta lagun askorekin Fukien'en lurreratu eta Pekin alderuntza abittu. Manila'tik 1575-garreneko garagarrillaren ondarrean irten ziran eta urte bereko

urrillean itzuli. Pekin ikusterik ez zuten izan (zio besterik zuala), Xabier Pantzeska deunak ere Txina ikusterik izan ez zuen bezela. Laukoaren arazo ontan txinatarrak uzkur eta Pekin'go agintarilenaren ordezkariak bide-erditik esti eragin zien. RADA ez izan ibiltari uts. Ikusi zituanak zintzo idatzirik utzi zizkigun, eta arenak ondorengo edestilariek ongi ustiatu dituzte.

Geroago *Rada'k* berriro Txina'ra ioan nai zuen: alegia 1576-garrenean. Oraingo ontan, ordea, aiei gure Sinismenekoak erakustea besterik ez zuen asmoan. Napar gartsuak uste izan zigun, Txina guztiz alderdi eta bazter egokia zala, lesu-Kisto'ren irakatsientzat.

RADA'ren izena ots-aundikoa, eta ikusten zuten guztiak askorako zala sinisten eta Sande zeritzanak Brunei'ra egin nai zuen osterako Iaguntzat artu zuen: 1578-garreneko epaillean, alegia. Brunei'ko agintari-jauntxoa, bere anaiak garaitu-azpiratu eta esku-utsik utzi: onek Sandei'ri Iaguntza eskatzen... berriro aginte-aulkira igo zedinean Espana'ren adiskide eta mendeko ere pozik jarriko zala. Ogeitamar ontziren indarrez, arako anai okerra errex burukatu zuten, bafian ua ezin atxi izan zuten. Laterri artako iri nagusia ur-ganean eraikia eta sukar gaiztoa an nagusi. *Rada* bera eren-min eraskorrez kutsatu zan. Illabete biren buruan Sande'k bazter aietatik irten nai izan zuan eta itsasoan RADA il egin zitzaien. Illotza urera bota zuten. *Rada'k*. berrogeita bost urte bakarrik zituen...

Etxeberria'tarr P.s.j.
Ilo-Ilo'n 198LVL9.